

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**VIII. Ferixie
argazkitan /08**

OSPAKIZUNA

**Apotzagako Auzo Etxe
elkartea /09**

LEINTZ GATZAGA

**Artizarraren
fenomenoa /10**



III. MENDI MARTXA DOMEKAN

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 12
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 13
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkartea	934 79 31 32
Industrialdia	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutégia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate

LARRIALDIK
SOS Deiak

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan, otoitzaldia.

GALARTZA
Domekan 12:30ean.

OHARRAK

MARGOLAN ERAKUSKETA
Ekainaren 18a bitartean Gurutze Muxikaren margolan erakusketa egongo da ikusgai udaletxeko ganbaran. Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetan, 12:00etatik 13:00etara.

MENDI MARTXA
Murruxiko MEK antolatuta III. Mendi Martxa egingo dute domekan, ekainak 13. Irteera 07:30ean izango da Copreci lantegiko aparkalekutik, eta 28 kilometroko ibilbidea egin beharko dute parte-hartzaileek.

PIRAGUA IRTEERA
Murruxiko MEk piragua irteera antolatu du Gallegora ekainaren 26 eta 27rako. Izena emateko, lokaletik pasatu edo deitu 943 79 93 74 telefono zenbakira, martitzenetan 19:00etatik 20:00etara bitartean. Bestela, Azkena tabernara jo ekainaren 18a baino lehen.

ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA
Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Ekainaren 29a baino lehen eraman behar dira kartelak udaletxera edo kultura etxera.

LORAMENDIRENAGENDA

LUDOTEKAKO JAIA
Ekainaren 16rako, eguaztena, ludotekako arduradunek ikasturte bukaerako jaialdia antolatu dute. Ludoteka ostean dagoen plaza txikian egingo dute 17:30ean hasita, eta Euskal Karaokeak girotuko du arratsaldea. Urtean zehar ludotekara joan diren umeek bukaera ezinhobea emango diote aurtengo kurtsuari.

ORAINDELA 7URTEARETXABALETAN

Elizburu Euskadiko Txapelketako irabazlea

Nafarroako Urdiain herrian egin zen erlojuz kontrako Euskadiko Txapelketako irabazlea izan zen Joxemi Elizburu 1997ko ekainean. 21 urte zituen aretxabaletarrak amateur mailako Iberdrola taldean hiru urte zeramatzan. Espainiako Txapelketan ere hartu zuen parte handik egun batzuetara.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Korda"

Ristra.
— Kordak eñ da txintxiliz laga berakatzak.



LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburu berrien zerrenda

- 6 urtetik aurrerako umeendako liburuak**
- 'Txano Gorritxo eta Amona Basatia' / Juan Kruz Igerabide
 - 'Ez esan inori' / Ana G. Lartitegui
 - 'Nora eta laugarren Errege Magoa' / Alfredo Gómez Cerdá
 - 'Sorgin bat ikaragarri polita' / Christophe Miraucourt
 - 'Anton Kaiku' / Koldo Izagirre
 - 'Amona Blasi eta herensuge-kumea' / Txiliku
 - 'Brummm!' / Anjel Lertxundi
 - 'Jonas larri' / Juan Kruz Igerabide
 - 'Basapiztia bat zopari' / Karlos Santisteban
 - 'Adio, adio!' / Pello Añorga
 - 'Maitasun istorio bat' / Piotr Wilkon
 - 'Altzor Planeta' / Disney
 - 'Hodei bat harrapatuz' / Idoia Beratarbide
 - 'Txokolatzeko atzamarra' / Ruben Ruiz
 - 'Beldurra, beldurtienetik ausartenera' / Nuria Roca
 - 'Munduko haurrak, mutur batetik bestera' / Nuria Roca
 - 'Lotarakoan jateko ipuinak'
 - 'Lotarakoan dastatzeko ipuinak'

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorion agurrak, SMS bidez!

EKAINAREN 7tik AURRERA Zorion agurrak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria**-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Ezkontu
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

BEIRALAN


KRISTALDEGIA

Markoztatzea

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274


ATREBENTZIAEZPADA/ Aurtengo udie be berue izengo dala esan daue. Bilddurrik emuten dutzu?



EMILIO ROSADO
Jubilau



GARI KORTAZAR
Langillie



FRANCISCO BARRUETABEÑA
Jubilau



VANESA GOMEZ
Langillie



MARISOL GALAN
Langillie



ITXASO GUTIERREZ
Ikaslie

Ez, bapez. Berue eta hotza iguel-iguel aguantetan dittut, gogorra naz-eta. Hori bai, hobeto kerizpeien, izen be, eguzkixen lagunik haundixena kerizpie da. Ez dot arazorik eukitten.

Bai, izugarrixe. Igez bero haundixe pasau geuen lan lekuen eta gogorra izen zan. Hala eta be, jentie kontzien tzietako esaten dauela pen-tsetan jat, gero ez bada hain bestekue izeten hobeto.

Ez, ez dauket okelarik eta ez jat berorik be pegetan. Igez, abuztuen, bularreko angieniek emun eusten baiñe ez dot uste beruegaittik izen zanik. Jan kontue zaindu biher dot, baiñe berue ez.

Egixe esateko apur bat bai. Etxie fresko manteniduten ahaleginketan naz, eta momentuz ez dauket bentiladorerik. Umiek, hala eta be, oso txarto pasetan dau, jaterik be ez dau gure...

Ez, berue nehikue ondo aguantetan dot-eta. Hala eta be, badauket bentiladorie etxien. Umiek okerrau, baiñe pistinara eruenda ahal dan onduen pasau daixien ahaleginketan gare.

Apur bat bai, igez bero haundixe egin euen-eta. Herrixen geldittuz gero txar-rau da, gaiñera; hondartza ingurure fanda behintzet hobeto. Bentiladoriekin eta illunpeien pasau biher.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ESTALKIAK LEKUTIK KANPO Arazo handirik sortzen ez duten mila kontu daude herrian, baina egunerokotasunean eragina dutenak. Telefono hariak gordetzen dituzten zuloen estalkiek, esaterako, behar bezala jarrita egon behar dute, herritarrek estropezu egin dezakete-eta. Sustoa besterik ez da izaten gehienetan, baina umeak eta adinekoak erori egin daitezke eta min handia hartu. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Lanuzteak Udal langileek

Lanuzteak egiten hasi dira —astean hiru egunean— Udal langileak, lan hitzarmena eskatzeko.

ASTEAN BEHIN /05

III. Mendi Martxa

Domekan, hilak 13, egingo du Murruxiko MEK III. Mendi Martxa. Mendizale askok hartuko du parte.

KIROLAK /06

Entrenatzaile berria

UDAKo preferente taldeak entrenatzaile berria izango du datorren denboraldian: Nikasio Galan.

ASTEKODATUA

11

HERRITARREK HARTU ZUTEN PARTE HIRU HANDIAK PROBAN

Joan zen asteburuan egin zuten 100 kilometroko Hiru Handiak proba. 11 aretxabaletarrek hartu zuten parte, tartean Aizkorriko maratoia egin zuten Juanma Martinezek eta Fernando Uribealgok.

BESTEKEKESANA

“ Etxebizitza erostera-koan sustatzaile edo promotore bat da etxebizitzok saltzen dituen. Udalarekin tratua egiten du, lursaila erosi eta etxebizitzak egiten ditu. Proiektua lotuta izaten du, badaki zelakoak izango diren etxe horiek bai kanpotik bai barrutik. Hortaz, eginda dagoen proiektua erosten dugu. Sustatzaile horrekin kontratua sinatzen dugu erosleok eta baldintza guztiak zehaztuko ditu hor: ezaugarriak, eraikitzeo erabiliko den materialen ezaugarriak, ordaintzeko epeak... Aurrerago aldaketa batzuk egiteko aukera izango dugu, baina horrek gastu bat suposatuko dugula uste dugu. Aldaketak egiteko ordua heltzen denean, baina, guk aurreikusitako gastu bat suposatzen duela konturatzen gara.

LEIRE OKARANZA
Arrasate Irratia/04-06-08

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Europa?

Gero eta gehiago modan jartzen ari zaigun izena edota hitza. Eta are gehiago hauteskundeak gainean ditugunean: lasterketa handi bat, zein baino zen gehiago izan edo eduki esparru zabalago bat aurkitu nahian Europako "bihotzean".

Aho ezberdinetan (politikoak, giza taldeak, Elizan...) entzuten ari gara Europa eraiki behar dugula denon artean. Baina zer ulertzen ote dugu hori esaten ari garenean?

Aurreko egunean, elkarrizketa batean Europa bera krisian zegoela entzun nuen; hasieran amestu zen hura galduta dagoela; eta, gehiago oraindik, Europa barruan hiru Europa mota daudela: lehenengo mailakoa, bigarrenakoa eta hirugarrenakoa. Ez al da nahasketa gehiegi asmo bakarrarentzat?

Dena den, ez zait oso zaila egiten porrot hau ulertzea. Nola eraiki zerbitu berria, aurretik eraikiak daudenak (geure herriak) egoera zailean aurkitzen direnean, elkarren artean kon-

pondu ezina dagoenean? Hauek izan behar dute Europaren zutabe berriak? Horrela, nekez zerbitu aurrera atera izango dugu.

Erronka gordinak sortzen ari zaizkie gure herriei, eta erantzun egokiak ematen ez badira, uste dut, hainbat egoera latzagoak bihur daitezkeela. Eta, bestalde, jendeari beste kezka batzuk sor diezazkioke, adibidez: Europak zer esan nahi du, asko daukaten gehiago edukiko dutela eta beste gero eta gutxiago? Nortzuk izango gara hemendik aurrera? Galderak. Benetan, kezagarriak.

Zer egin? Nola jokatu? Erantzuna ez da erraza. Baina ez litza-teke gaizki egongo norberak eta talde ezberdinek euren buruari galdetzea zer bilatu nahi dugun modu batera edo bestera jokatzuz; gizon-emakume arruntek zein leku daukaten geure planteamen-duetan; benetako lehenetasun eta balioak non jartzen ditugun...

Gai sakona, garrantzi handikoa baina aldi berean, errazegi eskutik eskura dabilena. Hala ere, ez dezagun etsi!

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altubei

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Protestak eta kirola

Greba, lanuzteak eta protestak ditugu barri aste honetan be. Eraikuntza-kuek konpondu guran dabitz eta udal langilliek astien hasi die lanuztekin. Euskaltegixen be atzo greba egin euien lan hitzarmena eskaketako. Baserritarrak eta harakiñek, ostera, kezkatute jarraitetan daue hiltegixen asuntuekin. Maialen Lujanbioi irakurri nutzen aurreko batien pankarta baten ostien bizi dan herrixe garella eta ez jako arrazoirik falta.

Kirol kontuetatik beti etorten jaku barri pozgarrirek eta horretxei ebatu biherko dotzau. **Iñigo Roldan** aretxabaletarra Ederra Mendi Bizikleta taldeko kide da. Aurten hasi die baillarako lau txirrindulari mendiko bizikleta probetan parte hartzen eta edarto dabitz. Iñigok 3. egin euen Gipuzkoako txapelketan, eta dagoeneko, 5. postuen dau Euskadiko Openien. Afizioz hasi eta goraiño aillegau biher jaku, zorionak!

Profesionalak ez garenok, barrez, mendi martxie daukou domekan. Murruxoko kideak ahalegin haundixe egin daue ibilbide politte antolaketan eta mendizalioi, nahiz eta mendizale zaletuek izen, aprezietie toketan jakule uste dot. Coprecin da hitzordue, goxeko zazpi eta erdietan.

LANUZTEA/ Martitzen, eguen eta egubakoitzetan egingo dituzte, 11:00etatik 12:00etara bitartean

Lanuzteak egiten hasi dira Udaleko langileak, lan hitzarmena negoziatzeko eskatzeko asmoarekin

MIRARI ALTUBE

Martitzenean hasi ziren lanuzteak egiten Aretxabaleta-ko Udaleko langileak. Lan hitzarmena eskatzen dute, beste udal batzuetan bezala, eta hori sinatu bitartean egingo dituzte lanuzteak martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 11:00etatik 12:00etara.

Ekainean, eta lan hitzarmena sinatu bitartean, astean hiru eguean egingo dituzte lanuzteak Udaleko langileek.

KPI-REN IGOERA ETA 600 EURO

Sindikatuak eta Eudelek aspaldi apurtu zuten lan hitzarmena negoziatzeko sortu zuten mahaia. Hori horrela, sindikatuen esanetan udal bakoitzeko langileek bertako politikoeekin lotu behar dute hitzarmena.

Martin Garai da Aretxabaleta-ko Udalean ELAko ordezkaria. Bere esanetan, otsailaz gero dauka Arritxu Oliden alkateak langileen eskaera orria, baina ez du ezer egin. Hortaz, aurten oraindik ez dute langileek soldata igoerarik izan. ELAk eta LABek sortutako plataformak eskatzen duen igoera honakoa da: KPIren igoera eta 600 euroko ordainsari bat. Hala, soldaten artean dagoen



Martitzenean, hilaren 8an, egin zuten lan hitzarmena eskatzeko lehenengo lanuztea Aretxabaleta-ko Udaleko langileek.

ezberdintasuna ez litzateke hainbeste nabarmenduko.

12 BOTO LANUZTEAREN ALDE

Joan zen egubakoitzean bildu ziren langileak. Hain zuzen, 17

batu ziren, eta 12k baietza eman zioten lanuzteari, lauk ezetza eta batek zuri eman zuen botoa. Han erabakitakoaren arabera, ekainean, eta lan hitzarmena sinatu artean, astean hiru egunean egin-

go dituzte lanuzteak: martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 11:00etatik 12:00etara bitartean. Ez dira protesta ekintzak egiten dabilzan bakarrik; Udal euskaltegikoek greba egin zuten atzo.



PSE-EEko kideak arrosak banatu zituzten azokan

Astelehenean heldu ziren PSE-EEko kideak Aretxabaleta-ko arrosak banatzera. Azoka inguru aukeratu zuten horretarako Mari Carmen Atxutegi zinegotziak, Iñaki Pierrugues Eskoriatzako zinegotziak eta Paco Garcia Arrasateko zinegotziak. Ordu erdi batean banatu zuten alderdiko propaganda herri-tarren artean, eta Eskoriatzarantz egin zuten gero. /M.A.



Herriko plaza 2/g ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)

Tel.: 943 77 13 57

ARETXABALETA



Orain dela bi urte ere Ugazteiko Santi Kurtzeko ermitan egin zuten lehenengo hamarretakoa mendizaleek.

ARTXIBOA

MENDIA/ 28 kilometro ditu ibilbideak eta Kurtzebarri mendi inguruan egingo dute

III. Mendi Martxa egingo du Murrukixo MEk domekan

M.A.

Domekan egingo du Murrukixo Mendizale Elkarteak bi urtean behin antolatzen duen mendi ibilaldia. 07:30ean aterako dira mendizaleak Copreci lantegiko aparkalekutik, eta 28 kilometro izango dituzte aurrez aurre. Paisaia paregabeaz goatzeko aukera izango dute guztiek ere.

Domekan, ekainak 13, egingo du Murrukixo MEk III. Mendi Martxa. Herritar askok parte hartzea espero dute, eta kanpotik ere etorriko dira mendizaleak.

COPRECITIK KURTZEBARRIRA

Behar bezalako oinetakoak gertatu, motxilan edaria sartu eta ez da besterik behar Murrukixoko kideek domekarako gertatu duten ibilbidea egiteko. 28 kilometro ditu, eta paraje zoragarriekin gozatu ahal izango dute parte-hartzaileek: Urkulu, Ugaztei, Degurixa, Alabita, Kurtzebarri, Mendiola eta Aretxabaletara

buelta. Ezkutuko txokoren bat ezagutuko du aretxabaletar batek baino gehiagok. Aurten Copreci lantegiko aparkalekuan jarri dute irteera, 07:30ean, Urkulura bidegorritik igotzeko; gainerakoan, orain bi urteko ibilbide bera da, bidexka batzuk edo beste aldatu badituzte ere. Bidean indar barik ez geratzeko, bestalde, hamarretakoa egiteko bi leku jarriko dituzte antolatzaileek: Ugazteiko Santi Kurtzeko ermitan (hasi eta 8 kilometrorra) eta Leixargarateko aterpetxean (20 kilometrorra). Gura beste janari eta edari aurkituko dituzte bietan ere. Erizainak egongo dira, gainera, ibilbi-

deko hainbat puntutan, norbaiti edozer gertatzen bazaio ere.

Ohiturari jarraituz, bukatzen dutenei diplomak banatuko dizkiete, eta parte-hartzaile guztien artean mendi materiala zozketatuko dute.

NOR BERE ERRITMORA

Orain bi urte, II. Mendi Martxa egin zutenean, 356 lagunek eman zuten izena. Gehienak aretxabaletarrak eta inguruko herrietakoak izan ziren, baina Bilbotik eta Oreretatik etorritakoak ere egon ziren. Aurten ere parte-hartzaile ugari izango direlakoan daude antolatzaileak. Uste dute lehenengo mendizaleek bost ordu eta erdi beharko dituztela ibilbidea egiteko, eta azkenek zortzi ordu. Hala ere, ez da lehiaketa izango, nor bere erritmoan joango da ibilbidea egiteko eta lagun artean parajeekin goatzeko. Domeka goizetan mendi bueltaxoa egiten duen edonork egiteko moduko ibilbidea gertatu dute antolatzaileek aurten ere.

*28 kilometro ditu
ibilbideak, eta
paraje
zoragarriekin
gozatuko dute*

LABUR

Andramaixak iragarriko dituen kartela egiteko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak

Aurtengo Andramaixak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. *Andramaixak 2004 Abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta* jarri beharko du, eta 50x70 zentimetroko neurria izan. Kultura etxera edo udaletxera eroan behar da ekainaren 29a baino lehen. 300 euroko saria uztailearen 7an emango diote irabazleari.

Domeka goizetan meza bakarra esango dute parrokiaren hurrengo hilabeteotan

Domeka goizetan hiru meza esan ohi dituzte Aretxabaletan: 09:00etan Agustindarren komentuan, eta 11:00etan gaztelaraz eta 12:00etan euskaraz parrokiaren. Uda partean, baina, parrokiaren bakarra esango dute; 11:30ean izango da, eta euskaraz eta gaztelaraz esango du dagoen abadeak.

Susto handia baina kalte gutxi eragin zituen martitzen ilunkaran egindako euri jasak

Martitzen ilunkarako ekaitzak ur asko utzi zuen. Hori horrela, denbora gutxian urez bete ziren kaleak eta herriko hainbat tokitan sartu zen ura, Eroskin esaterako. Otorala kalean ere ur asko pilatu zen. Kirol etxean susto galanta hartu zuten sabaiko plaka batzuk erori zirenean, baina kaltea uste baino txikiagoa izan zen.

TXUTXU-MUTXUA



Haurren astea egin dute Kurtzebarri eskolan

Haur Hezkuntzako ikasleak izan dira protagonista astean Kurtzebarri eskolan. Hala, euren antolatutako hainbat ekitaldi izan dituzte eta euren egindako beste horrenbeste: dantza emanaldiak, zirkua... Atzo, eguna, txangoa egin zuten guztiek eta gaur, egubakoitza, Korri, Xalto eta Brinko pailazoan emanaldia izan dute. Bihar, zapatua, bestalde Kurtzebarri eskolako eguna ospatuko dute egunean zehar. /M.A.

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

L. GONZALEZ

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

FUTBOLA

Nikasio Galan arrasatearra izango da preferenteko hurrengo entrenatzailea

Preferente taldeko jokalariek gehienek urte asko daramatzate UDAn, eta bertan jarraitzeko asmoa agertu dute

M.A.

Bukatu dute aurtengo denboraldia futbol taldeek, baina da-goeneko hurrengoan pentsatzen hasita dago UDAko zuzendaritza batzordea. Hala, entrenatzaile berria izango du preferenteko taldeak: Nikasio Galan arrasatearra; laguntzailea, berriz, Xabier Zangitu bergararra.

Oporrak hartu aurretik hurrengo denboraldia gertatuta utzi ohi dute futbol taldeek. Hala egin gura izan du UDA kirol elkarteak ere, eta entrenatzaile berria hautatu du preferenteko taldearendako.

JOKALARIAK MANTENDU

Igor Gordobil arrasatearra izan da azken denboraldian preferenteko taldeko entrenatzailea. Kos-

ta egin zitzaion martxa hartzea taldeari denboraldi hasieran, baina oso ondo ibili da gero, eta laugarren postuan bukatu du denboraldia. Igor Gordobil, baina, Bergarako taldean izango da irailetik aurrera.

Gordobilen hutsunea betetzeko beste arrasatear bat hautatu du UDAko zuzendaritzak: Nikasio Galan, hain zuzen. Orain arte Mondrako bigarren entrenatzaile lanak egin ditu. Hari laguntzen, ostera, Xabier Zangitu bergararra ibiliko da. Jokalariei dagokienez, zuzendaritzakoek ez dute uste aldaketa handirik egongo denik. Gehienek urte asko daramatzate UDAn, eta jarraitzeko asmoa dutela agertu dute. Hala ere, kanpoan dagoen aretxabaletarren bat ekar dezakete, eta gazteen taldetik igo ere bai.



Mondrako bigarren entrenatzailea izan da orain arte Nikasio Galan.

ARRASATE PRESS



Lau sari eskuratu zituzten karatekek

Joan zen zapatuan Bergaran egin zuten Karate Txapelketan hartu zuten parte Aretxabaletako karate jokalariek. 11 joan ziren eta lau sari eskuratu zituzten: 6-8 urte artekoetan Oxel Vazquezek 1. saria; 9-10 urte artekoetan Unai Urrutiak 2. eta Axel Lizarazuk 3. eta 11-12 urte artekoetan Odei Vazquezek 3. saria. Oso pozik itzuli ziren taldea eta entrenatzailea, hain emaitza onik ez dute-eta orain artean lortu. /M.A.

PIRAGUA

Piragua irteera Murruxorekin hilaren 26 eta 27an

Pirinioetan dagoen Gallego herrira piragua irteera antolatuta du Murruxoko MEk hilaren 26 eta 27rako. Izena emateko azken eguna 15ean izango da Murruxoko lokalean, eta hilaren 18an Azkena tabernan.

PILOTA

Debarroko finalerdia jokatuko dute Errasti anaiek

Arrasateko eta Bergarako bikoteen aurka jokatuko dituzten azken partiduak irabazi eta gero Debarroko Pilota Txapelketako finalerdiak jokatuko gertu daude Errasti anaiek. Elgetako Oskarbi taldearen aurka jokatuko dute zapatuan, hilak 12, 21:00etan. Lehenengo partidua Iturrigorri frontoian izango dute, eta datorren astean Elgetara joango dira. Irabaziz gero hilaren 26ko finalean izango dira.

SQUASHA


Final laurdenak jokatzen hasiko dira gaur egubakoitza

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako Squash Txapelketako lehenengo fasea bukatu dute. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, final laurdenak jokatuko dituzte, eta irabazleek finalerdia eta finala izango dute aurrez aurre datorren astean. Bi aretxabaletar daude final laurdenetan: Iban Dasilva eta Juan Antonio Varilla. Finalerdia, eguazteenan izango dute, ekainak 16, eta finala, egubakoitzean, hilaren 18an.

ARETXABALETAN RESIDENCIAL BEROA



Orain aukeratu egin dezakegu!



- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logela bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Informa zaituz Aretxabaletako gure bulegoan (obra aurrean)
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

HURRETIK



Ane Idigoras

Fotografixa-zalie

Fotografo profesionala izen gureko leuke Anek, baiñe momentuz zalie izetiez konformetan da. Hori bai, ez dau bape txarto egitten, izen be, dagueneko badittu sari batzuk esku artien; azkena, Arrasateko Emakume Txokuek emundekue.

Ze ikasketa egin zeuen?

Ikus-entzunezko ikasketak egin nittuen lelengo eta gero urtebe-
tez erretratugintza ikesi neuen Bilbon.

Zaletasune ala lanbidie dozu erretratugintza?

Lanbide izeteko gertatu nindduten, baiñe momentuz zaletasune
da. Estudixo txiki bat gertatute dauket, eta erreportaje batzuk be
egin izen dittut. Hala eta be, mekanizau taller baten egitten dot
lan oin, eta hamendik urte pare bat barru, diru gehitxuau dau-
ketenien, fotografo lanetik bizi gureko neuke.

Noix hasi zitzen erretratuek ataraten?

Oin dala hiru bat urte. Ikus-entzunezko ikasketak egin ostien bideue
ez jaten askorik gustau, eta erretratu kamarie hartu neuen esku
artien. Gustau, eta ordutik hona ez dutzet jarein.

Zelako kamarie dauketzu?

Analogikuekin hasi nitzen, baiñe oin Nikon digitala dauket.

Honezkero erretratu asko izengo dittuzu...

Bai, pillue. Lelengokuek diapositibak eta papelien ataratakuek
zien, eta azken honeik CDietan gordeten dittut.

Zein eratako erretratuek ataratie gustetan jatzu?

Danetik; umiek oso naturalak izeten die eta asko gustetan jat,
ezkontza erreportajiek be bai, eta bodegoiek be atara izen dittut.

Lehiaketetan be parte hartu izen dozu...

Bai, azkena Arrasateko Emakume Txokuek antolatutekuen, eta
bigarren sarixe emun eustien. Aurretik AEDk egin euen Gabo-
netako postalan lehiaketan eta Arrasateko Udalak *Gazteak eta
aisialdia* izenakin antolatutekuen hartu neuen parte. Bixetan
lelengo sarixek emun eustien.

Emakume Txokuek antolatutekora biildutekue zelakue zan?

Emakume bat agerketan zan metalezko pieza bat errebarbetan.

Erretratu onak atarateko ze biher da?

Pillue atara eta denpora luzie *galdu* edo pasau biher da erretra-
tuekin. Hola ikesten da onduen.

Ordenadorie ibiltten dozu erretratuek tratetako?

Bai, aukera asko emuten dittu ordenadoriek, eta Photoshop pro-
gramie ibiltten dot erretratuekin lan egitteko.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Zuriñe Velez de Mendizabal

Holanda / 2004ko martxoa

S an Jose zubian joan zen Zuriñe Holanda aldera beste lau lagunekin. Bidaiaren helburua, bertan ikasten dagoen lagun bat bisitatzea izan zen. Martxoaren 18an Madrilen hegazkina hartu eta Amsterdamera joan ziren. Hala ere, egun hori Haga (La Haya) ezagutzen igaro zuten.

Hiria, aurretik esan zietena baino politagoa dela aitortzen du Zuriñek. "Iritsi eta berehala, oso hiri garbia dela atzematen da. Gainera, jende gehiena garraio publikoa erabiltzera ohituta dago, eta bizikletaz ere jende mordoia ikusi genuen".

Gauean, baina, taldea bitan banatu eta batzuk Hagan lotara geratu ziren bitartean, Zuriñe eta bi lagun Rotterdam aldera joan ziren. "Hiri batetik bestera joateko ia ez dago zailtasunik. Trena dela, autobusa dela... beti dago zerbitzuren bat erabilgarri". Tranbiarekin ere izan zuten ezustekoren bat; Hagan ia harrapatu zituen bost lagunak.

Bigarren eguna Rotterdam ezagutzen eman zuten. Eguraldiak ez zien lagundu; okerrera egin zuen, eta ateki bat erosi beharrean egon ziren. Haize bortitzarekin batera euria ez zen egun guztian gelditu. Hala ere, ez zien ezertarako balio izan aterkiak. Guztiak busti-busti eginda igaro zuten eguna. "Ez zen turismoa egin eta paraje berriak ezagutzeko girorik one-



"Palestina eta Iraken okupazioaren aurkako manifestazioa zegoen Amsterdamen"

"Etxebizitza gehienetan ez dute gortinarik erabiltzen; ezkutatzeko ezer ez dutelako omen da"

na. Euria apur bat gelditzen zenean saiatzen ginen hiriko lekurik esanguratsuenak ezagutzen. Bitartean, coffeeshopetan edo dendak bisitatzeko igarotzen genituen orduak".

Hirugarren eguna Amsterdamen eman zuten. Eguraldi hobea egin zien bertan. Hala ere, hainbat coffeeshop bisitatu zituzten. "Toki guztietan daude. Gehienetan ez dute alkoholik zerbitzatzeko eta kalamua saltzeko dute; bestela, hemengo edozein tabernatan zaudela dirudi".

"Amsterdamen geundela, Palestina eta Iraken okupazioaren kontrako manifestazioa egon zen, eta amaieran, musika arabiarreko kontzertua egin zuten. Han egoteko aukera izan genuen". Bestalde, Auzo Gorritik pasatu zirenean gogorra egin zitzaie emakumeak erakusleihenetan ikustea nahiz eta jakin hala egoten direla. "Gauean, gizon ugari ikusi genuen kabinetan sartzen".

Bestalde, Holandako etxebizitza gehienek ez dituztela gortinarik nabarmendu du Zuri-

ñek. "Atentzioa eman zigun kaletik pasatzerakoan etxe barruko bizitza ikustea. Esan zigutenaren arabera, jendeak ez dio etxe barruan dagoenari erreparatzen, ez omen dute ezer ezkutatzeko".

M.A.



Manifestazioa amaitu ondoren polizia inguruan zegoela ohartu ziren.



Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Aretz

taberna

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 11 / 169. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Jende ugari eta giro bikaina zapatuan Eskoriatzan ospatutako VIII. Ferixien

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Arizmendik antolatutako VIII. Ferixie ospatu zen Eskoriatzan, eta beste behin ere, jendez lepo egon zen herria. Erakustaldiak, animaliak, artisauak, baserriko produktuak... Izan ere, eguraldi bikaina lagun, jende ugari gerturatu zen azokan parte hartzera.

Eguraldi bikaina egin zuen zapatuan, eta horrek jende ugari erakarri zuen herrira. Arizmendiren VIII. Ferixien giro bikaina egon zen: herritar ugari baserriar jantzita, kaleak jendez beteta... Gainera, asko izan ziren txorimalo lehiaketan parte hartu zutenak, gehienak gazteak.

JENDE UGARI KALEETAN

Animalia bereziak, mota guztietako artisautza, harri-zulatzailen erakustaldia... Toki guztietan jende ugari. Txistorra jateko ere, ilara luzeak.

Eguzkiak berotu arren, Eskoriatzako giroan murgildu zen Debagoieneko jende asko, eta batek baino gehiagok dirua utzi zuen askotariko produktuak zituzten saltokietan.



Animaliek kaiola barruan sufritu zuten zapatuko beroa.

Z.V.M.



Harri-zulatzailak txukun egin zuten beraien lana.

Z.V.M.



Jose Mari Arkauz turroigileak saria eraman zuen etxera. Argazkian, eskoriatzarra alaba Edurnerekin.

Z.V.M.



Baserriko produktu freskoek saltoki ugari bete zituzten.

Z.V.M.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

HERRI ESKOLAREN JAIA

Luis Ezeiza Guraso Elkarteak antolatuta Herri Eskolaren jaia ospatuko da bihar, zapatua. Ekitaldi ugari antolatu dituzte herrian. Goizerako, haur emanaldiak, herri txikiteoa, bazkaria eta arratsalderako, umeentzako jaia, buruhandiak, herri txokolata eta dantzaldia antolatu dituzte. Eta, horrez guztiaz gainera, gurasoek egindako eskulanen erakusketa egongo da egun osoan.

Auzo Etxe elkarteak 25 urte egin ditu Apotzagan

Z.V.M.

San Bernabe eguna ospatuko da bihar. Apotzagan ere egun berezia izango da. Izan ere, izen bereko ermita du elizate horrek. Gainera, bihar, Auzo Etxe elkartearen 25.urreurrena ospatuko dute Apotzagan. Meza eta bazkaria dira egitarauko ekitaldi batzuk.

Bihar, zapatua, ekainak 12, Apotzagako Auzo Etxe elkartearen 25. urtemuga ospatuko dute. Egun horretarako zenbait ekitaldi antolatu dituzte.

SAN BERNABE EGUNA APOTZAGAN

Apotzagako Auzo Etxe elkarteak 25 urte bete dituela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eguna ospatzeko. Hasi, baina, aurreko zapatuan hasi ziren. Ekainaren 5ean mus txapelketa egin zuten elkartean bertan. Lehen postuan Aretxabaletako Silvino eta Joxe geratu ziren; bigarren aretxabaletako Gabi eta Juan, eta hirugarren, Gatzagako Pequeño eta Ina sailkatu ziren.

Auzo Etxe elkartearen urtemuga da bihar, eta gainera, San Bernabe eguna ospatzen da. Antolatzaileek hainbat ekintza prestatu dituzte biharko. 10:00etan kanpai errepika egin eta etxafuegoak jaurtiko dituzte.

San Bernabe ermitan meza esango dute, 12:30etan. Ondoren, luntxa egiteko asmotan dabiltzala adierazi dute San Bernabe egunaren antolatzaileek.



Aretxabaletar hauek izan ziren garaile mus txapelketan.

Hamaiketakoaren ondoren, umeentzako jolasak prestatu dituzte. Gaztetxoek, artoa jaso, zaku karrerak egin, gozo-eltze edo piñatak apurtu eta beste hainbat jokotan aritzeko aukera izango dute.

Behin jokoak amaituta, guztiak bildu eta auzo-bazkaria egingo dute denek batera. Egun bere-

zi horretan, Auzo Etxe elkartean batuko dira auzotar eta bazkideak. Sabela ondo bete ondoren, dantza egiteko aukera izango dute bazkarian parte hartzen dutenek. Izan ere, Laja eta Mikel trikitilariak giroa alaituko dute beraien musikarekin. Horretarako, baina, Apotzagara joan behar.

LABUR

San Antonio ermita inauguratuko dute domekan

Domekan, ekainak 13, Gellako San Antonio ermita inauguratuko dute. 1652. urteko basiliza honetan hainbat lan egin berri dituzte.

Hilaren 13an meza esango dute eguerdian. Tenplua Joannes de Echave apaizak egin zuen; hau, Izurieta, Gellao eta Zarimutzeko apaiza omen zen, bere testamentuan zioenaren arabera. Ermita Iparraldera begira dago. Barruan, XVII. mendekoa izan daitekeen San Antonioren egurrezko irudia aurkitzen da.

Aste Zapatista ospatuko dute Eskoriatzan

Ekainaren 14tik 20ra, Aste Zapatista ospatuko da, Gazte Asanbladak eta Txiapasekin Elkartasunerako Euskal Plataformak antolatuta. Ekimen gehienak kultura etxean izango dira. Astelehenean, Duina Koordinadorari buruzko hitzaldia egingo da, 19:00etan. Martitzenean, diapositiba emanaldia, 18:00etan. Eguenean, Txiapas eta Mugimendu Zapatistari buruzko hitzaldia, 19:00etan. Egubakoitzean, adin guztientzako ipuin kontaketa egingo dute Bibliotekan, 18:00etan hasita. Zapatuan, berriz, Aldarrikapenerako Jaia antolatu dute, eta egun osoan ekitaldiak egingo dira.

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA

Informa zaitez!

Model-in tratamenduak.

Zelulitisa eta gizentasuna:
horiekin bukatzeko osagaiak dauzkagu
Zelulitisari STOP

Aranburuzabala 42 Tel.: 943 71 51 54 ESKORIATZA

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

ENRIKE MAZMELA BOLINAGA
HORTZ KLINIKA

Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Txalaparta
taberna

Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

SAION DE BELLEZA
OSASUNA ETA EDERGINTZA

DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Karrantza aldean egon ziren hogeita zortzi lagunek primeran igaro zuten

Z.V.M.


Eguraldia lagun izan zuten aurreko asteburuan Bizkai aldera joan ziren gatzagarrek. Gureleko 28 kide joan ziren Karrantza aldera, eta Turtzioz herrian hartu zuten asteburuan ostatu. Kobak bisitatu, dinosauroen artean ibili eta hondartzara joan ziren herritarrek.

Aurreko asteburuan egin zuten bidaia Bizkai aldera herriko guraso elkarteko hainbat lagunek. Atsedean hartu eta Euskal Herriko toki berriak ezagutzeko aukera. Gazte eta helduek primeran igaro zutela adierazi dute.

EZ ZIREN GELDIRIK EGON

Egubakoitzean irten ziren Gatzagatik 14 gazte eta 14 heldu Karrantza aldera. Turtzioz herrira joan ziren, eta bertako Armañon aterpetxean hartu zuten ostatu.

Mendi ibilaldia egiteko aprobetxatu zuten asteburuko giro bikaina. Horrela, inguruetakoa kobazuloak bisitatu zituzten, eta asteburuko beroa ikusita, ziur fresko-fresko egon zirela bertan. Ondoren, El Karpinera joan ziren,



El Karpin parkean dago Dinosaurio Animatronikoen Parkea; gazteenek primeran igaro zuten bertan.

bertan dagoen dinosauroen parkera bisitatzera. Bertan, milaka urtean Lurraren jaun eta jabe ziren animaliak ikusi zituzten,

benetako eskalan eginak. Ekaineko lehen asteburuko beroari aurre egiteko, toailak hartu, eguzkitako krema eman eta Oriñon-

go hondartzara joan ziren. Hondarrarekin eta olatuekin jolastu eta eguzkitan etzan eta atsedean hartzeko astia izan zuten.

Kantabriako Oriñon hondartzan freskatu ziren gatzagarrek

El Karpineko Dinosaurio Animatronikoen Parkea gaztetxoeren gustuko

Turtzioz herriko aterpetxe batean hartu zuten ostatu Gatzagako 28 lagunek

Artizarraren fenomenoak ikustera, Gatzagara

Z.V.M.


Martitzenean Esne-bideko bigarren planeta, Artizarra, Eguzkiaren eta Lurraren artean jarri zen. Fenomeno hori ikusteko, zenbait zale Gatzagara igo ziren, eta teleskopioak jarri zituzten, segurtasun osoz ikuskizuna ikusteko asmoz, hain zuzen ere.

Martitzenean, Artizarraren fenomenoak ikusteko aukera egon zen; Artizarra Eguzkiaren aurretik pasatzen ikusteko aukera, alegia. Jende ugari gerturatu zen arrazoi horrek bultzatuta Gatzagainera.

TELESKOPIOAK, HOBETO IKUSTEKO

Ilartegi taldekoek, esaterako, teleskopioak jarri zituzten bertan, gertakaria hobeto ikusteko. Neurri bereziak hartu zituzten ikusleek, Eguzkiari zuzenean begiratzeak begi-lesioak eragin ditzakeelako. Azkeneko, 1882. urtean gertatu zen fenomenoak.

Nahiz eta zero lainotuekin hasi zen eguna, fenomenoak ikusteko aukera izan zuten Gatzagara gerturatu zirenek. Bi orduan egon zen Artizarra Lurraren eta Eguzkiaren artean, eta urte mordoxka behar izango dira berriz ere horrelako gertaera natural bat gerta dadin.



Gatzaga gainean egokitu zituzten beraien teleskopioak Ilartegi taldekoek.

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

COMPOSTELA
Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2004

Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

- Debagoieneko datuak izan ahala, sarean.
- Aurreko hauteskundeetako emaitza konparatiboak.

www.goiena.net

**ARRASATE
IRRATIA**
FM 107.7

- Arrasateko datuak.
 - Adituren iritziak.
 - Analisia eta balorazioak.
- Astelehenean, 09:00etatik aurrera.

FM 107.7

ASTELEHENEKO Goienkaria

- Debagoieneko emaitza orokorrak eta herriz herri.
- Hego Euskal Herriko eta Espainiako datuak.
- Iritziak eta analisiak.
- Eguneko gorabeherak.

EROSI astelehenean egunkari saltokietan
Edo egin HARPIDEDUN: 902 36 38 51

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

10 bidaiak zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:

Viajes Eroski
Bidaiaz
Grupo Eroski
Kulturako Berriak

Euskaldunok behar dugun **berria**





FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

LASTER LOKAL BERRIRA GOAZ

Mitarte 23 ARETXABALETA/ Tel.: 943 79 96 66/ Fax: 943 77 10 33/ urkulu@cadena88.com



giltzen kopiak ere egiten ditugu

Etxe onenekin lan egiten dugu:

